

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

TOBILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Basoko zur aprobetxamenduen lizitazioa, prozedura irekiaren bidez, Tobillasko Administrazio Batzarraren onura publikoko 123 zenbakiko mendian, "El Llano" dermioan

1. Erakunde adjudikatzailea:

Tobillasko Administrazio Batzarra.

2. Kontratuaren xedea:

Onura publikoko 123 mendiko baso aprobetxamendua, "El Llano" dermioan (76/21 espedienteko 1/22 zenbakiko lotea).

Arrisku eta menturako aprobetxamendua El Llano dermioan, Tobillasko Administrazio Batzarraren OPko 123 zenbakiko mendian, 12 ha inguruko eremu batean (1.349 zuhaitz) bakanketa trinkoa eginez. Espezia: pinu gorria (*pinus sylvestris*). Atera beharreko bolumena: 1.141,35 m³, azal eta guzti, muturrean 7,5 zentimetroko diametroaraino.

3. Prezioa. Hau da kontratuaren lizitazio prezioa:

ESPEZIEA	ZUHAITZ ZURGAIEN KOPURUA	KUBIKAZIOA (METRO KUBOAK AZAL ETA GUZTI, 7,5ERAINO)	PREZIOA EURO/METRO KUBO	GUZTIRA (EUROTAN)
<i>pinus sylvestris</i>	1.349	1.141,35	35	39.947,25

Gehiago eskainiz hobetu ahal izango da prezio hori.

4. Prozedura:

Irekia.

5. Iraupena:

24 hilabete, kontratua izenpetzen denetik aurrera.

6. Bermeak:

Behin betikoa: eskainitako azken prezioaren ehuneko 5, balio erantsiaren gaineko zerga aparte:

7. Betekizunak:

Baldintza tekniko fakultatiboen agirian ezarritakoak.

8. Espedientearen azterketa:

Kontratazio honen espedientea eta baldintza tekniko fakultatiboen agiria Tobillasko Administrazio Batzarraren bulegoetan daude (Bovedako errepidea, 12 zenbakia) 9:00etatik 15:00etara arte.

9. Eskaintzak aurkeztea:

Eskaintzak (agiriaren bederatzigarren klausulan deskribatzen da haien dokumentazioa) Tobillasko Administrazio Batzarrean aurkeztuko dira, 9:00etatik 15:00etara arte, astelehenetik ostiralera, 15 egun naturaleko epearen barruan, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta (lehendakaria: Alfredo Molinuevo Sobrón, telefonoa: 609733992).

10. Eskaintzak irekitzea:

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo asteazkenean irekiko dira eskaintzak, 12:00etan, Tobillasko Kontzeju Aretoan.

11. Iragarki gastuak:

Adjudikaziodunak ordainduko ditu.

Tobillas, 2022ko irailaren 28a

Lehendakaria

ALFREDO MOLINUEVO SOBRÓN